

LAN-POSTUEN MURRIZTEA, OZDEZKAPENEN ATZERATZEA, LAN-KARGEN GEHITZEA... HEZKUNTZA PUBLIKOA JOMUGAN!

Eusko Jaurlaritzari eta modu berezian Hezkuntza Sailburuari, behin eta berriro, hezkuntzaren garrantzia eta kalitateari buruz, proiektu izar eta baliabide berriei buruz hitz eginez ahoa betetzen bazaie ere, egunerokoan ikasgeletan lanean ari garen langileok, gurasoek, zentroetako zuzendariek baita ikasleek beraiek ere ongi dakigu errealitatea oso bestelakoa dela.

Propaganda ugariz estaltzen saiatu den arren, jaurlaritza honek hezkuntzan murrizketak baino ez ditu aplikatu. Pasa den ikasturte amaieran CC.OO. eta UGTrekin lorturiko akordio lotsagarria oinarri hartuta, langileen soldatak eraso bazituzten, ikasturte honen hasieran, akordio berean oinarrituta, lan-postuak murriztu dituzte, ordezkapenak atzeratu, lan-kargak gehitu, behar berezietako ikasleentzat baliabideak gutxitu, euskalduntze baliabideak ahuldu... Esan beharrik ere ez dago erabaki hauek guztiek hezkuntzaren kalitatean duten eragina eta eskola publikoa indartzeko bidean suposatzen duten atzerapausoa.

Berriki entzun dugu Isabel Celaá sailburua komunikabideetan 1.000 irakasle-lanpostu berri sortuko dituela haizaten. Errealitateak ordea bestelakoa dio.

Iazko datuekin erkatuta, **Haur eta Lehen Hezkuntzan 3.464 ikasle gehiago daude (199 gela gehiago)**. Honek esan nahi du aurreko ikasturteetako **irakasle-gela proportzioa mantenduz 350 lanpostu gehitu beharko lituzkeela** departamentuak. Hazkunde **erreala ordea 80koa** besterik ez da izan, hau da, berez hazi beharko lukeena baina **270 irakasle gutxiagokoa**.

Bigarren Hezkuntzan egoera are larriagoa da: 2.121 ikasle gehiago ditugu, beraz aurreko ikasturteetako **proportzioak mantenduz 400tik gora irakasle gehiago beharko lirateke**, baina **Hezkuntza Sailak 262 irakasle kendu ditu!** Propagandatik haratago, zenbakiok argi adierazten dute Eusko Jaurlaritza Irakaskuntza Publikoan egiten ari den murrizketaren tamaina.

Ordezkapenetan ere egoera larria da, lan hitzarmen berriaren ondorioz, **irakasle ordezkapen gehienak 5. edo 6. egunean ari dira betetzen**, eta bitartean eskolan ikasleak klaserik gabe eta zaindu beharrean.

Atzera pausu onartezina dugu hau, eskolaren egunerokoa zaildu, zuzendaritza taldeen egitekoa korapilatu eta irakasleen, hezitzaileen eta hezkuntzako gainerako langileen lan zama handitu egiten duena. Ikasleak eta gurasoak ere zuzenean dira kaltetuak, dagokien irakasle gabe egunak eta egunak ematen dituztelako, ordu lektiboak galduz. Eraginkortasunaren eta hezkuntza-kalitatearen mesedetan, ordezkapenak behar bezala lehen egunetik bete behar dira.

Ondorioz, jaurlaritza irakasle eta irakasle ez diren hezkuntzako langileei aplikatzen ari zaien murrizketak medio, lan prekarietatea areagotu egin da irakaskuntzan, bereziki ahulena den langile taldean, langile interinoen artean, alegia. Berauek dira lanpostu murrizketen, ordezkapen atzeratzearen eta gainerako murrizketen ondorioz larrienak jasaten ari direnak, noiz eta langile premia eta hezkuntza beharrak inoiz baina handiagoak direnean.

Hezkuntza Saila errealitatea estali eta itxuraldatzen saiatzen bada ere, langileok ondo baino hobeto dakigu hartutako erabakiek eta ezarritako murrizketek eragin zuzena dutela hezkuntzaren kalitatean. Erabaki hauen ondorioz eskola publikoa ateratzen da ahulago eta galtzaile, besteak beste, lekuan lekuko proiektuak, berrikuntza asmoak, didaktika hobekuntzak eta abar nekez eraman baitaitezke aurrera baldintza hauetan.

Aurreko ikasturtetik egoera hau salatzen dihardugun sindikatuez gain, jakin badakigu beste eragile ugari ere egoera honen aurrean kexak eta protestak gauzatzen ari direla, eta ekimen horiek babestu eta txalotzen ditugu, bizirik dagoen hezkuntza sistema baten erakusgarriak baitira.

2010 honetan, tamalez, irakaskuntza publikoan atzera pausu larriak gertatu dira, Eusko Jaurlaritzak bultzatu dituen murrizketen ildotik. Krisia nola kudeatu nahi duten argi utzi dute: krisiaren kostua langileon lepora zamatuz eta zerbitzu publikoak ahulduz. Harturiko neurri hauek guztiek gezurtatu egiten dute, agintean daudenek esaten duten moduan, hezkuntzak lehentasunezko trataera duenik. Guztiz bestela, Hezkuntza Sailaren erabakiek, CCOO eta UGTk gutxiengoan sinatutako Lan Hitzarmenaz lagunduta, larriki ari dira irakaskuntza publikoa, bertako langileak, ikasleak eta gurasoak kaltetzen.

Horregatik guztiagatik, hezkuntzan gehiengo sindikala osatzen dugun STEE-EILAS, LAB eta ELA sindikatuok eraso hauei aurre egin eta erantzuteko beharra ikusten dugu eta horretarako deia egiten diegu hezkuntzako langile eta eragile ezberdinei. Zerbitzu publikoak indartuko dituen politika exijitzen dugu eta irakaskuntza publikoan horren alde borrokatzeko dinamika jarriko ditugu
martxan.

Besteak beste hauek dira gure aldetik eta ikastetxe eta bertako langileokin elkarlanean momentuz aurrera eramatea proposatzen dizkizuegun ekimenak:

- **Gehiengo sindikalaren idatzi amankomuna prentsara eta ikastetxeetara** murrizketak salatuz.
- **Prentsaurrekoa** murrizketak salatzeke eta bultzatuko ditugun ekimenak aditzera emateko.
- **Kontzentrazioak Hezkuntza Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan.** Abenduaren 1ean 13:00etan Donostia, Bilbo eta Gasteizen.
- **Ekimenak ikastetxeetan:** Ikastexe ezberdinetan murrizketak salatzeke bururatzten zaizkizuen ekimenak egitera gonbidatzen zaituztegu.
 - ✓ **Olentzerori gutuna:** Proposamen bateratu moduan, abenduko azken lan egunean, Olentzero ospatzeko ekintzen barruan, ikastetxe ezberdinetan murrizketak salatzen dituzten pankartak, kartelak, etab. azaldu "Olentzerori gutuna: Ordezkoak lehen egunetik nahi ditugu / Behar Bereziatarako baliabideak eta langileak nahi ditugu / Irakasle gehiago nahi ditugu / Besterik". Ekimen hauen argazkiak atera eta lurralde ordezkaritzetara, Lakuara, prentsara, zuen kontaktu ezberdinei, etab. bidali (sindikatuoi ere bidali mesedez ahalik eta gehien zabal ditzagun).
 - ✓ **Zuzendaritza eta organo gorenaren idatzia** Hezkuntza Sailari murrizketak salatuz.
 - ✓ Ikastetxeetatik **gurasoei eskutitza** murrizketak euren seme-alabengan zein ondorio izaten ari diren azalduz.
 - ✓ Zentroetan jartzeko murrizketak salatzen dituzten **kartelak**. Zentroetan ordezkapenak, behar bereziak, plantilla murrizketak, etab. salatzen dituzten kartelak jartzera gonbidatzen zaituztegu, baita abenduaren 1eko ordezkaritzetan egingo ditugu kontzentrazioetan parte hartzeko gonbite kartela.
 - ✓ Lanean ez dauden **ordezkoei** gonbite berezia luzatzen diegu **beraien lan egoeraren inguruan etengabe argibideak dagokion tokian eska ditzaten**.

MURRIZKETARIK EZ!
BALIABIDE GEHIAGO IRAKASKUNTZA PUBLIKORAKO!
PLANTILLAK SENDOTU! ORDEZKAPENAK LEHEN EGUNETIK BETE!

Lan baldintzak hobetu, eskola publikoa indartu!

2010eko azaroaren 25ean

